# Annual Report on the Journal Munibe Antropologia-Arkeologia 2019

In a meeting on 15 March 2019, the Scientific Committee of the journal Munibe Antropologia-Arkeologia went over the changes that had taken place since the last committee meeting, and also discussed the most pressing concerns of the journal. These included the growing number of manuscripts that are submitted to the journal for review, which is beginning to become more than can be accepted for the printed paper edition. Aranzadi Sciences Society, the publisher of Munibe, is a non-profit making association that is committed strategically to the journal, but at a high cost and this should be maintained at a sustainable level. Therefore, from 2020, it was agreed to reduce the number of words per paper to 7,500 (including the extended abstract in English) with a maximum of 6 figures, except in justified cases, which will be assessed on an individual basis by the Editorial Committee. The text and the figures, videos or complementary data may be made available via online links (*Supplementary Information*) so that the number of pages occupied by each paper in the printed edition can be reduced, which will allow the inclusion of more studies. The journal website was adapted to these new rules in September and they will come into effect for manuscripts submitted next year.

Twenty-nine original manuscripts were submitted to the journal in the course of 2019. Three of these manuscripts could not be reviewed in time, and will be assessed in 2020. Therefore, a total of twenty-six manuscripts were considered for this paper edition. Each manuscript was assessed by at least two external reviewers, with a third opinion added in some cases. Eight manuscripts were rejected for diverse reasons. The remaining eighteen papers published in this issue can be divided into those that needed a profound revision (8) and the ones for which minor changes sufficed (10). The average time between receiving the acknowledgement of receipt signed by the corresponding author and the final decision whether to publish the paper or not was 26 weeks, although this varied greatly depending on several factors, such as the length and topic of the paper. Except in cases where the manuscript dealt with a topic that was not aligned with the usual areas of the journal, the rejections were accompanied by the negative reports of the reviewers and the opinion of the guest editor. The authors tended to take issue with those reports.

The reviewing system was again the double blind method, in which neither the authors know the identity of the reviewers nor these know who wrote the manuscripts they are assessing. This meant that each manuscript had to be edited to remove any indication of the author(s) to the reviewers: references to the authors, citations in the text (replaced by the text "self-citation", to avoid breaking the thread of the argument), acknowledgements and bibliography cited. All the agents (guest editors, external reviewers and authors) were fully informed in writing about the reviewing mechanisms that would be applied and were given precise instructions about each step in the process, including a template to guide the reviewers' reports. As far as possible, communications between all the agents has been carried out electronically, although each author signed an acknowledgement of receipt for their manuscript, with the date given at the head of each paper, accepting the protocol described above.

The addition of DOI codes to the papers is improving their visibility in Internet substantially, as can be seen in the records monitoring them in Google Scholar. Since 1991 until the time this report was written (30 December 2019), the papers published in Munibe Antropologia-Arkeologia since 1983 have been cited 5,284 times (compared with 4,645 times, up to last year). 2,185 of these citations have been made in the last five years (contrasting with 2,323 a year ago). The papers published in the period 2014-2018 (94 papers) have already been cited 212 times, which provides an impact factor for the journal in the last five years of 2.25 citations per published paper. Any author can verify in Google Scholar the number of times that their paper has been referenced and the context of the citation. In this same period, the most often cited paper (12 times) was published in 2015 by L. Montes, R. Domingo, J.A. Cuchí, M. Alcolea and C. Sola: *Filling the Ebro Basin map: the Mesolithic levels of the IXth millennium cal BP from Espantalobos (Huesca, Spain)".*

*Alvaro Arrizabalaga. Chief Editor*




Citations to the Munibe AA journal in different academic media per year.


https://doi.org/10.21630/maa.2019.70.cr
*S. C. Aranzadi. Z. E. Donostia/San Sebastián*
*ISSN 1132-2217 • eISSN 2172-4555*

# Munibe Antropologia-Arkeologia 2019 aldizkariaren kronika

2019ko martxoaren 15ean bildu zen Munibe Antropologia-Arkeologia aldizkariaren Batzorde Zientifikoa. Bilera horretan aztertu zituzten batzorde horrek azken bilera egin zuenetik aldizkariak izandako bilakaera eta arazorik premiazkoenak ere planteatu zituzten. Arazo horien artean dago, aldizkarian ebaluatzeko jasotzen diren jatorrizko artikuluak gero eta gehiago direla eta paperezko ediziorako onar daitekeen kopurua gainditzen hasi direla. Aldizkariaren argitaratzaile den Aranzadi Zientzia Elkartea irabazi-asmorik gabeko elkartea da eta apustu estrategikoa du Muniberen argitalpena. Kostu altua du eta jasangarritasunari eutsi beharra dago. Hori dela eta, erabaki da, 2020tik aurrera, artikulu bakoitzaren hitz kopurua, gehienez, 7.500koa izango dela (ingelesezko laburpen luzea barne) eta 6 irudi izango dituela gehienez, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta salbuespen horiek banan-banan aztertuko ditu Argitalpen Batzordeak. Testua, irudiak, bideoak eta informazio osagarria lineako esteketara bidera daitezke (*Suplementary Information*), hala, artikulu bakoitzaren orrialde kopurua murriztu eta jatorrizko artikulu gehiagorentzako lekua izateko. Aldizkariaren webgunea arau berri horietara egokitu genuen irailean eta arauak indarrean egongo dira datorren urteko artikuluentzako.

2019an hogeita bederatzi jatorrizko artikulu jaso ditugu aldizkariaren erredakzioan, aintzat hartzeko. Jatorrizko hiru artikulu ezin izan ditugu garaiz ebaluatu eta 2020an ebaluatuko ditugu. Hala, hogeita sei artikulu baloratu ditugu guztira paperezko ale honetarako. Jatorrizko artikuluetako bakoitzak, gutxienez, kanpoko bi berrikusketa jaso ditu. Gainera, kasu batzuetan, hirugarren iritzi bat ere izan da. Horietako zortzi baztertuta gelditu dira, zenbait arrazoi direla-eta. Ale honetan argitaratutako gainerako hemezortzietatik zortzik aldaketa handiak behar izan dituzte eta hamarrek, berriz, nahikoa izan dute aldaketa txikiekin. Korrespondentziaren egileak sinatutako hartu-agiria jasotzearen eta artikulua argitaratzeko edo ez argitaratzeko erabakiaren arteko batez besteko epea hogeita sei astekoa da. Dena den, epe hori oso aldakorra izaten da artikuluaren luzeraren edo gaiaren moduko faktore ugarien arabera. Testua aldizkarian ohikoak diren gaietatik kanpokoa ez bada behintzat, idatziak baztertu egin direla adierazteko jakinarazpenarekin batera, berrikusleen txosten negatiboak eta editore gonbidatuaren iritzia ere igortzen dizkiegu egileei eta haiek, askotan, ez dira agiri horietan adierazitakoarekin ados agoten.

Erabilitako berrikusketa-sistema, beste behin, itsu bikunekoa izan da. Horren bidez, egileek ezin dute jakin zein den berrikusleen nortasuna eta berrikusleek ere ezin dute jakin zein den ebaluatutako idatzien egileen nortasuna. Hala, testuak, banan-banan, editatu egin behar izan dira ebaluatzaile izango zirenek egileen arrastorik ikus ez zezaten: egileen erreferentziak, bidaltze-markak testuan ("Autoaipua" hitza jarri dugu horrelakoen ordez), esker onak eta aipu bibliografikoak. Eragile guztiei (gonbidatutako editoreak, kanpoko berrikusleak eta egileak) eman zaie idatzizko informazioa garatu beharreko ebaluazio-mekanismoen inguruan. Gainera, prozesuaren fase bakoitzerako jarraibide zehatzak jaso dituzte, ebaluatzaileen argibideen inguruko gutxi gorabeherako txantiloia barne. Ahal izan den neurrian, eragile guztien arteko harremanak bide elektronikoaren bidez bizkortu dira, nahiz eta egile bakoitzak bere jatorrizko dokumentuaren hartu-agiria sinatu duen artikulu bakoitzaren goiburuan data kontsignatuta eta hemen zehaztutako protokoloa onartuta.

Artikuluei DOI kodeak jarrita hobetu egiten zaie sareko ikusgarritasuna. Asko ari da hobetzen; hala erakutsi digute Google Akademikoa (Google Scholars) delakoaren kontrol-erregistroek. 1991. urtetik testu hau idatzi dugun unera arte (2019ko abenduak 30), Munibe Antropologia-Arkeologia aldizkariko artikuluak (1983. urtetik) 5.284 aldiz aipatu dira (iaz 4.645 aldiz) eta horietatik 2.185 azken bost urteetan (2.323 duela urtebete). 2014-2018 aldian argitaratutako artikuluak (94 artikulu) dagoeneko 212 aldiz aipatu izan dituzte; horrek guztiak aldizkariaren inpaktu-faktorea eskaintzen digu eta hauxe da: azken bost urteotan, aipa litekeen artikulu bakoitzeko 2,25 aipu. Edozein egilek kontsulta dezake Google Akademikoa aplikazioan bere artikulua zenbat aldiz eta zer testuingurutan aipatu izan duten. Aipatu dugun aldi horretan gehien aipatu izan den artikulua (hamabi aldiz), 2015ean L. Montes, R. Domingo, J.A. Cuchí, M. Alcolea eta C. Sola egileek argitaratutakoa izan da: *"Completando el mapa de la Cuenca del Ebro: el Mesolítico del IX milenio cal BP de Espantalobos (Huesca, España)"*.

*Alvaro Arrizabalaga. Editore nagusia*




Munibe AA aldizkariaren inguruko aipuak baliabide akademiko ugaritan urte bakoitzean.

# Crónica de la revista Munibe Antropologia-Arkeologia 2019

El día 15 de marzo de 2019 se reunió la Comisión Científica de la revista Munibe Antropologia-Arkeologia. Además de repasar la evolución de la revista desde la última reunión de la citada comisión, se plantearon los problemas más acuciantes de la cabecera. Entre ellos, destaca el número creciente de originales que se depositan en la revista para su evaluación, que comienzan a superar los que pueden ser aceptados para la edición impresa. La Sociedad de Ciencias Aranzadi, editora de la revista, es una sociedad sin ánimo de lucro, que efectúa una apuesta estratégica con la edición de Munibe, a un coste elevado y que debe mantenerse en términos sostenibles. Por este motivo, a partir de 2020, se acuerda reducir el número de palabras por artículo a 7.500 (incluido el resumen extendido en inglés) y con 6 figuras como máximo, salvo excepciones justificadas, que serán valoradas por el Comité Editorial de forma individualizada. Tanto el texto, como las figuras, vídeos o información complementaria podrán ser redirigidos a links online (*Suplementary Information*) para así poder reducir el número de páginas de cada artículo y poder dar cabida a más originales. La página web de la revista se adaptó a estas nuevas normas en el mes de septiembre y entrarán en vigor para los artículos del próximo año.

A lo largo de 2019 se han depositado en la redacción de la revista veintinueve originales para su consideración. No hemos podido evaluar a tiempo tres originales, que quedan para su consideración a lo largo de 2020. Así pues, el total de manuscritos valorados para este número en papel es de veintiséis. Cada uno de los originales ha recibido un mínimo de dos revisiones externas, incorporándose en algunos casos una tercera opinión. Ocho de ellos han sido rechazados por diferentes motivos. Los dieciocho artículos restantes editados en este número se dividen entre los que han requerido cambios mayores (ocho) y los que ha bastado con cambios menores (diez). El periodo medio entre la recepción del acuso de recibo firmado por el autor de correspondencia y la decisión final acerca de la publicación o no del artículo se sitúa en veintiséis semanas, aunque resulta muy variable en función a distintos factores como la longitud o temática del artículo. Salvo alineamiento del manuscrito fuera de las temáticas habituales de la revista, los rechazos van acompañados de los informes negativos de los revisores y la opinión del propio editor invitado del mismo, documentos con los que los autores van a discrepar de modo habitual.

El sistema de revisión empleado ha sido nuevamente el de doble ciego, lo que impide, tanto a los autores conocer la identidad de los revisores, como a estos, conocer la de los autores de los manuscritos evaluados. Esto ha obligado a editar cada manuscrito para eliminar cualquier rastro del / de los autores a los eventuales evaluadores: referencias de los autores, llamadas en el texto (sustituidas por la expresión "Autocita", para no romper el discurso), agradecimientos y citas bibliográficas. Todos los agentes (editores invitados, revisores externos y autores) han sido puntualmente informados por escrito de los mecanismos de evaluación que se iban a desarrollar y han dispuesto de instrucciones precisas para cada fase del proceso, incluyendo una plantilla orientativa de indicaciones de los evaluadores. En la medida de lo posible, las relaciones entre todos los agentes se han agilizado por la vía electrónica, aunque cada autor ha firmado un acuse de recibo de su original, con la fecha consignada en la cabecera de cada artículo, aceptando el protocolo aquí detallado.

La dotación de códigos DOI a los artículos viene incrementando su visibilidad en la red, que va mejorando sustancialmente tal y como observamos en los registros de control de Google Académico. Desde el año 1991, hasta la redacción de este texto (30 de diciembre de 2019), los diferentes artículos de Munibe Antropologia-Arkeologia (desde 1983) han sido citados 5284 veces (frente a 4645 veces, el año pasado), 2185 de las cuales durante los últimos cinco años (por 2323 hace un año). Los artículos publicados durante el periodo 2014-2018 (94 artículos) han sido citados ya 212 veces, lo que nos proporciona el factor de impacto de la revista, para los últimos cinco años, de 2,25 citas por artículo citable. Cualquier autor puede consultar en Google Académico el número de veces que su artículo ha sido citado y en qué contexto lo ha sido. Para el periodo reciente citado, el artículo más citado (en doce ocasiones) ha sido el publicado en 2015 por L. Montes, R. Domingo, J.A. Cuchí, M. Alcolea y C. Sola: *"Completando el mapa de la Cuenca del Ebro: el Mesolítico del IX milenio cal BP de Espantalobos (Huesca, España)".*

*Alvaro Arrizabalaga. Editor Principal*




Citas a la revista Munibe AA en distintos medios académicos por año.


https://doi.org/10.21630/maa.2019.70.cr
*S. C. Aranzadi. Z. E. Donostia/San Sebastián*
*ISSN 1132-2217 • eISSN 2172-4555*